

Heziketa bereziko hezitzaileen ordezkoen araudi berria lortu dugu!



Ordezkoen araudi berria

Gaur, ekainak 25, Hezkuntza Saila eta lan legepeko irakasle eta hezitzaileen hitzarmenaren sinatzaileak adostasun batera heldu gara. 2025eko irailaren 1etik aurrera, ordezkot langileen lan baldintzak hobetuko dituen araudia indarrean jarriko da. Lan hitzarmena sinatzea ezinbestekoa izan da adostu berri dugun araudia lortzeko.

Araudi honek 2024ko abenduaren 19an sinatutako lan hitzarmenaren III. eranskina ordezkotatuko du.

Gaur lortutakoak, mugarri berri bat ezartzen du Heziketa Bereziko ordezkot hezitzaileon lan baldintzetan. LABek orain indar guztiak jarriko ditu baliabideak esleitzeko irizpideen negoziazioan.

COCUan eskainiko diren ekoizpenagatiko kontratuak

Hitzarmen berriaren ondorioz, lortutako 300dik gorako lanpostuak LPZn sartzea gobernu kontseiluak momentuz baimendu ez duenez, ikasturte hasierako esleipenean ekoizpenagatiko kontratu eran eskainiko dira. Horrek, kalte egiten die langileei eta lanpostuen izaerari. Gauzak horrela, LABek proposatutako akordioa sinatu dugu lan hitzarmenaren sinatzaileok.

Akordio honi esker, 2025-2026 ikasturteko COCUrako soilik, ekoizpenagatiko kontratu hauek 12 hilabeteko iraupena izango dute, hau da, kontratu horiek 2025eko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 31ra artekoak izango dira.

Gainera, kontratu horiek sinatzen dituzten pertsonen lehentasuna izango dute plaza horretan jarraitzeko, 2026ko irailaren 1ean bakante bihurtzen direnean. Lehentasun honetaz baliatuko diren langileak 2026-2027 ikasturteko esleipen prozesuetan bakante izaera dutenen baldintza beretan parte hartuko dute.

2024ko abenduaren 19an LAB, Steilas eta UGTk sinatutako lan hitzarmen berriaren jasotakoari jarraituz ordezkotaren araudi berria negoziatu, adostu eta sinatu dugu.

Ondorioz, ordezkotaren araudi berria lortu dugu! Aldi berean, 25-26 ikasturterako COCUan eskainiko diren ekoizpenagatiko kontratuak hobetzeko akordioa sinatu dugu.

Lanpostu horiek 2025eko irailaren 1etik bakante izaera izango dute ondorio guztietarako. Beraz, adostasun honek ere, hitzarmenean sinatutako %5eko behin-behinekotasun tasa jaisteko bidean kokatzen gaitu.

Lanpostu hauek gain, 25-26 ikasturtean errepikatuko diren beharrak eta uko egiteen ondoriozkoak bakante gisa aterako dira.

Baliabideen esleipen irizpideak

Gai hau nahasmen eta korapilo gehien sortzen dituen da. Gaurkoan, administrazioak ez ditu bere etxekolanak eginda ekarri. LABek hitzarmenean jasotakoaren arabera ikasturtea bukatu baino lehen negoziatu eta adostasunetara iristea exijitu du eta gure ekarpenak aintzat hartuko dituen proposamen berria mahai gaineratzea. Horretarako, hurrengo bilerarako data zehaztu dugu eta adostasunetara heltzeko beharrezkoak diren bilerak egiteko prestutasuna adierazi dugu. LABeko ordezkariok presionatzen jarraituko dugu kolektibo guztietan nahikoa hezitzaile lortu arte.

Hitzarmenaren sinadura

Prozedura guztika gaindituta uztailean hitzarmena sinatzea aurreikusten da. LABetik hurrengo mahai negoziatzailean sinatzea eskatu dugu. Administrazioak bere aldetik beharrezko kudeaketa guztiak egingo dituela adierazi digu. Edozein kasutan, irailaren 1erako indarrean egongo dela esan du.

Ordezkoen birbaremazioen behin betiko zerrenda

25-26 ikasturterako ordezkotaren behin betiko zerrendak argitaratu dira. [Lotura honetan](#) duzue ikusgai.

Merezimendu lehiaketaren ondoriozko kontratuen sinadura

Kontratuak uztailean zehar sinatu beharko dira. Salbuespenez abuztuan sinatzeko aukera emango dela adierazi digu sailak. Informazio zehatzagoa izaterakoan helaraziko dizuegu.